



## Clara Wolfram

KAZETARIA ◆

## Uda irekia

ARMAIRU BATEN maneran irudikatzen dut neure gorputza, kaxoi ezberdinez osatua. Kaxoi batzuk altuak eta zabalak dira, beste batzuk txikiak eta kurbatsuak, denetarik badago nire gorputz honetan. Batean, nire desioak gorde ditut. Beste batean nire gezur txikiak eta nire azken zigarroak. Azken kaxoi batean urtean zehar amestutako muxu guztiak ditut pilatuta, laztan sotil batzuekin batera.

Azken urtean agenda eta erlojuaren orratzen araber bizi izan naiz, arnasa hartzeko tarte gutxi gordeta. Eta urte osoko martxaren ondoren astun sentitu dut gorputza, enbor zahar baten modura. Kaxoietatik tiraka aritu naiz, baina alferrik. Ez etxean eta ez kalean, indarrak ez dut bildu ahal izan deus ere irekitzeko.

Eta orduan oporrak iritsi dira, eta karabana baten modura gurpilak jarri dizkiot nire armairu zaharkituari. Paseatzera eramanez armairua bizilagunaren herrira, Xiberoko mendi punta batera, hain zuzen ere. Eta han non isilunea zinez isilunea den, zinez eijerra, zinez geldia, han non distantziak ez diren nabari, ez baitago inongo presarik inora iristeko, han aspaldi itxitako kaxoiak mugitzen hasi zaizkit.

Ohartu gabe, goiz batean, usainen kaxoia ireki zait. Belarrak, beroak eta behien gorotzak nire barruko

hainbat ate ireki dizkit, eta errekan ikusi dut neure burua, haurra bezala, harri batetik bestera saltoka. Xiberoko hitz goxoak nire belarrietara ailegatu dira ondoren, eta aspaldian blindatutako barnebidetako zabaldu dizkidate. Azkenik, nire amaren adina izango zuen andre baten eskutik pasodobleak dantzatu ditut Mauleko taberna zahar batean, eta hor bai, pelbisean blokeatutako azken kaxoiak ere askatu zaizkit.

Uda irekia eman dut Xiberoran, eta jende anitz eta

*Uda irekia eman dut Xiberoran, eta jende anitza ezagutzeko aukera eijerki baliatu dut gorputza aire freskoaz bustitzeko. Xiberoran ez da jende asko ikusten kalean, baina bizitza bertan da, edozein etxearen atzeko atarian*

askotarikoa ezagutzeko aukera eijerki baliatu dut gorputza aire freskoaz bustitzeko. Xiberoran ez da jende asko ikusten kalean, baina bizitza bertan da, edozein etxearen atzeko atarian. Bizimodu propioa bilatzen eta eraikitzen ari den jendea ezagutu dut, eta begirada bakoitzarekin kaxoietan gordetako ilusioa eta sentsualitatea piztu zait. Xiberoran jendea barreiatuta bizi da, ni mendi punta honetan, zu beste hartan, baina plan irekiak egiten dira, jendeak elkar gonbidatzen du, eta gaualdi horietan beti bada sorpresarik. Han non hiririk

ez den, han sentitu ditut gertuen besteen ametsak. Ez da autobiarik behar bizitzaren abiadura sentitzeko. Irekia da munda, mugimenduan dagoen jendea dagoen bitartean. ■



## Ixiar Rozas



IDAZLEA

## Asimetria

1. *Def.* Formak, tamainak eta kokalekuek bat egiten ez dutenean. 2. *Gerr.* Gerrak asimetrikoak dira. Jakina da politikaren jarraipena dela gerra, beste bitartekari batzuk erabiliz. Inoiz izan den gerrarik laburrena Britainia Handia eta Zanzibarraren artean eman zen, 38 minutukoa. 3. *Etn.* Amaginarreba terminoan arreba agertzeak asimetria bat sortzen du, eta hori argitu beharrak hainbat buruhauste eman die ikertzaileei. 4. *Hizk.* Asimetria bizi gara, gizarte elebidun asimetriko bat, eta asimetria hori bai geografikoa eta baita funtzionala izango da ere, beraz politikoa. 5. *Har.* Harremanak asimetri-

koak dira. Batek esan zion besteari: badakit gure adiskidetasuna asimetrikoa dela, eta ez dugula zereginik nik zuri zuk niri baino gehiago behar zaitudalako. 6. *Mus.* Neneh Cherryren tunika beltza eta lepoko asimetrikoak haizearekin mugitzen ziren Trinitate Plazako kontzertuan joan den uztailean.

Honaino, datorren uztaile bitartean idatziko dudun glosarioa, hurrenez hurren, honelako hitzekin osatuko da, aldaketa asimetrikoak tarteko: dramaturgia, epikoa, *fade out*, mamua, natura, eta abar, hamaika hitz osatu artean. ■

